| PROGRAMA<br>*PROGRAMA* | SUBCONCEPTO<br>*AZPIKONTZEPTUA* | EUROS<br>*EUROAK* |
|---|---|---|
| 9311 | 741.05 | 7.856.409,36 |
| | GUZTIRA / *TOTAL* | 7.856.409,36 |

Diru-sarrerok Arrantza 2000-2006 PDBari dagozkion jarduketak finantzatzeko erabiliko dira.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko abenduaren 14an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

Los fondos se destinarán a la financiación de las actuaciones correspondientes al DOCUP Pesca 2000-2006.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 14 de diciembre de 2004.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

## ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

### Zk-6644

AGINDUA, 2004ko abenduaren 9koa, etxebizitzaren premiaren inguruko egoerei buruzko aginduaren bigarren aldaketari buruzkoa.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko abenduaren 30eko Aginduak, etxebizitzaren premiaren egoerei buruzkoak, aparteko kasu batzuk jasotzen ditu bere artikuluetan, hain zuzen ere etxebizitzen titularrak izan arren (jabetzan, azalera-eskubidez, gozamenean edo jabetza soilean) babes ofizialeko etxebizitzei buruzko araudiaren ondorioetarako etxebizitzaren premia duten pertsonatzat hartzen direnei zuzenduak.

Etxebizitza baten titularrak izan arren etxebizitza hori erabiltzerik eta baliatzerik ez dutenei etxebizitza babestua lortu ahal izateko aukera erraztea izan zen Administrazioaren asmoa Agindu hori eman zuenean. Ildo horretan, eta etxebizitza erabiltzeko ezintasuna

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

### N°-6644

ORDEN de 9 de diciembre de 2004, de segunda modificación de la orden sobre circunstancias de necesidad de vivienda.

La Orden de 30 de diciembre de 2002, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre circunstancias de necesidad de vivienda, recoge en su articulado unos supuestos excepcionales, dirigidos a personas que, siendo titulares de vivienda en propiedad, derecho de superficie, usufructo o nuda propiedad, son consideradas necesitadas de vivienda a los efectos de la normativa de vivienda de protección oficial.

La intención de la Administración al dictar esta Orden fue favorecer el acceso a la vivienda protegida de aquellos que aún siendo titulares de vivienda no pueden disponer de ella para su uso y disfrute. En este sentido, y ante las dificultades que plantea, en algunos ca-

egiaztatzeko beharrak zenbaitetan planteatzen dituen zailtasunak kontuan hartuta, bi aldaketa puntual egin behar dira 2002ko abenduaren 30eko Aginduaren 3. artikuluko 4 eta 5. idatz-zatietan.

Horren arabera, eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituen otsailaren 12ko 40/2002 Dekretuaren 4. artikuluan eta babes ofizialeko etxebizitzen erregimenari, eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren lehenengo azken xedapenean ezarritakoari jarraiki, ondokoa

XEDATU DUT:

***Lehenengo artikulua.***– Etxebizitzaren premiaren egoerei buruzko 2002ko abenduaren 30eko Aginduaren 3. artikuluko 4. idatz-zatiaren testua aldatzen da, eta horrela idatzita geratuko da:

«4.– Dibortzio edo bereizte prozedura dela medio, familiaren etxebizitza beste ezkontidearen bizileku izendatu bada, epailearen ebatziz eta bi urtetik gorako denboraldi batean (etxebizitzaren premiaren egoerei buruzko Aginduaren 2.1 artikuluan adierazitako datetatik aurrera kontatzen hasita), eta eskatzaileak beste etxebizitzarik ez badauka.

Ezkontideen ohiko bizilekua zen higiezina besterentzen denean, betiere eskatzailearen partaidetzaren balioa 72.000 eurotik gorakoa ez bada (eskrituraren arabera).»

***Bigarren artikulua.***– Etxebizitzaren premiaren egoerei buruzko 2002ko abenduaren 30eko Aginduaren 3. artikuluko 5. idatz-zatiaren testua aldatzen da, eta horrela idatzita geratuko da:

«5.– Jaraunspen onartuaren eta ordainduaren kasuan, jaraunspen-masako etxebizitza batek edo batzuek hainbat titular dituenean edo dituztenean, jaraunsle titularkideak ondoko baldintzak betetzen dituenean.

a) Ezein titularkidetasun-portzentaje ezin izango da %50etik gorakoa izan.

b) Jaraunspen-masaren barruko etxebizitza-partaidetzen balioak ezin izango du 72.000 euroko kopurua gainditu (tasazio-txostenaren arabera).

Tratamendu berdina aplikatuko da etxebizitza baten edo batzuen titularkidetasunaren jatorria gurasoek seme-alabei egindako dohaintzak diren kasuan.»

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko abenduaren 9a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

sos esta circunstancia acreditada de indisponibilidad de vivienda, se hace necesario abordar dos modificaciones puntuales que afectan a los apartados 4 y 5 del artículo 3 de la Orden de 30 de diciembre de 2002.

En su virtud, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 del Decreto 40/2002, de 12 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, y en la Disposición Final primera del Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo

DISPONGO:

***Artículo primero.***– Se modifica el texto del párrafo 4 del artículo 3 de la Orden de 30 de diciembre de 2002, sobre circunstancias de necesidad de vivienda, que queda redactado como sigue:

«4.– Tras procedimiento de separación o divorcio y siempre que el solicitante carezca de otra vivienda, habiéndose designado judicialmente la vivienda familiar existente como domicilio del otro cónyuge por un periodo de tiempo superior a dos años, contados a partir de las fechas a que se refiere el artículo 2.1 de la Orden sobre circunstancias de necesidad de vivienda.

En el supuesto de enajenación del inmueble que fuera domicilio habitual de los cónyuges, siempre que el valor de la participación del solicitante no supere los 72.000 euros, según escritura.»

***Artículo segundo.***– Se modifica el texto del párrafo 5 del artículo 3 de la Orden de 30 de diciembre de 2002, sobre circunstancias de necesidad de vivienda, que queda redactado como sigue:

«5.– En el supuesto de herencia aceptada y liquidada, cuando exista cotitularidad de una o varias viviendas de la masa hereditaria, el heredero cotitular, siempre que cumpla los siguientes requisitos.

a) Ninguno de los porcentajes de cotitularidad podrá superar el 50%.

b) El valor de las participaciones en vivienda dentro de la masa hereditaria no podrá superar los 72.000 euros, según informe de tasación.

Idéntico tratamiento se dará a los supuestos en los que dicha cotitularidad de una o varias viviendas proceda de donaciones de padres a hijos.»

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de diciembre de 2004.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.